

ESKULTURA

Kristo gurutziltzatua

Kristo gurutziltzatu hau Lorenzo Fernández de Viana eskultore ospetsuak egin zuen, garbitasun-oihalaren atzealdean ageri den sinadurak erakusten duen bezala: “*L. F. de Viana*”. 1897ko urriaren 27a baino lehenagokoa behar du izan, egun horretan eskultoreak berak ezarri baitzion *lignum crucis* erlikia, egiazkotasun-agirian jasota dagoenez: “*Trasládose esta / auténtica y reliquia / a esta cruz las / cuales estaban en la sala / capitular el día / 27 octubre 1897/ puselas F. de Viana*” [“Egiazkotasun-agiri eta erlikia hauek gurutze honetara lekualdatu ziren biak, eta biak zeuden kapitulu-gelan 1897ko urriaren 27an, F. De Vianak jarriak.”] .

Kaoba koloreko Kristo bat da, polikromatu gabea, lau iltzeekin gurutze begitsu batean josia. Ondo proportzionatutako gizon gazte bat bezala irudikatuta dago. Burua ezkerrerantz okertuta dauka, arantzazko koroaz koroatuta, eta sorbaldetarainoko ilea. Aurpegian, tormentuaren oinazea antzematen zaio. Garbitasun-oihala gorputzari itsatsita eta gerrira lotuta dago soka txirikordatu baten bidez. Gurutze-habearen behealdean sartuta, gurutze latindar formako erlikia-ontzi bat dago, barruan *lignum crucis* delakoa daukana, hau da, Jesus gurutziltzatu zuten gurutzearen ezpaltxo bat. Gurutzea kono-enbor formako idulki baten gainean dago, eta habearen buruan idazkun hau darama, kartela batean idatzita: “INRI” (*Iesvs Nazarenvs Rex Iudaeorum*). Lan honetan argi geratzen da Lorenzo Fernández de Viana errealismoaren eta giza irudiaren zale sutsua izan zela, baina betiere klasikoaren eta imajinagin handien herentzia ahaztu gabe.



Egilea: Lorenzo Fernández de Viana y Ugarte (1866-1929)

Data: c. 1897

Teknika: Madera tallada

Neurriak: 1,25 x 52 x 9 cm

Kokapena: Santa María Katedrala (Vitoria-Gasteiz)



Oinarrizko hautaketa bibliografikoa:

BARTOLOMÉ GARCÍA Fernando R. "Obras del escultor Lorenzo Fernández de Viana (1866-1929) en la Catedral de Santa María de Vitoria-Gasteiz". *Euskonews & Media*, 2009. <https://www.euskonews.eus/0476zbnk/gaia47603es.html>

ARREGUI BARANDIARAN, Ana. *Lorenzo Fernández de Viana (1866-1929) un escultor alavés*. Vitoria-Gasteiz: Diputación Foral de Álava, 2021, pp. 78-82.




Altxor bizia

Testuak: Fernando R. Bartolomé García
Argazkiak: Quintas argazkilariak

araba álava
foru aldundia diputación foral

-k finantzaturako proiektua

Zuzendaritza eta koordinazioa:



arte.catedralvitoria.eus

Bisita gidatuak

Informazioa eta erreserbak
Tel. 945 255135
www.catedralvitoria.eus

Bisitarien zentroa



Santa María kantoia 3
01001 Vitoria-Gasteiz